

# noaua

V. Dantza Eguna, martxan

Maiatzaren 7ko galdera:  
“Nahi al duzu  
Euskal Herria Estatu  
independentea izatea?”

Igandean, Laburbira  
Sutegin




Errausketaren Aurkako Mugimendua:

**“Hartu ezazue hondakinen  
kudeaketa onaren norabidea”**



# Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2016 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2016ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



**FUNERARIA  
GONZALEZ**  
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

## AURTEN HILERRI ZAHARRAREN ITXIERA:

•GORPUZKI ETA HILOTZ-HONDARRAK ZUEN KABUZ  
KUDEATU NAHI BADITUZUE GUZTIAZ ARDURATZEN GARA:

- HILERRI ZAHARRETIK ATERA ETA ERRAUSTEAZ
- HILERRI ZAHARRETIK BERRIRA ERAMATEAZ

(IZAPIDE GUZTIAK EGITEN DITUGU: OSASUN SAILEKO BAIMENAK, UDALA, ERREGISTRO ZIBILA, OSASUN-GARRAIOA ERRAUTS-LABERA EDO BESTE HILERRI BATERA...)

OSASUN SAILAK BAIMENDUTAKO ENPRESA GARA (ERREG ZB: F18)

**943 36 21 63 (24H)**

AURREKONTU ETA INFORMAZIOA KONPROMISORIK GABE



• BEILATOKI GUZTIAK - ERRAUSKETAK

•EDOZEIN ASEGURU IZANDA (OCASO, SANTALUCIA...) HERIOTZA GERTATZEN BADA,  
DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H. GUZTIAZ ARDURATZEN GARA

**LABUR BIRA**  
FILM LABURREN XIV. ZIRKUITUA

Martxoaren 26a, igandea  
19:00etan Sutegin (doan)

noaua  
Turisismo Urdin  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Euzko Jaurlaritzaren Gobernua Vasco

## Albistea iruditan

# Zumarteko zuhaitza zutik mantentzearen alde

Egunotan Udarregi Ikastolako LH6ko ikasle talde baten bisita izan dugu NOAUA!n. Eskerrak helarazi nahi dizkiote lerroon bidez, Xabier Arregi Usurbilgo alkateari. Dakizuenez, legegintzaldi honetan zehar gauzatuko da Zumarte Musika Eskolaren birgaitzea. Eskolak eraikinaren alboan duen zuhaitzetako bat arriskuan jar dezaketela eta, ikasle talde hau alkatearekin bildu eta zuhaitz hau zutik mantentzea eskatu diote. Alkateak Udaletik ikasleonek eskaera aintzakotzat hartzeko ahal duten guztia egiteko prestasuna adierazi diote. Hortik eskertza, ikasleekin biltzeko tartea hartu, haien eskaera entzun eta eskaeraren aurreran erakutsitako jarreragatik.



Zumarteko ikasle talde bat alkatearekin batzartu eta zuhaitz hau zutik mantentzeko eskatu diote.

## Laburrean

### Hilerrri zaharra

Familiartekoen gorputz-hondarrak berreskuratu nahi dituztenek hiru hilabete epea izango dute horretarako. Informazio gehiago, Udaleko zerga-bilketako leihatillean, astelehenetik ostiralera, 13:00etatik 14:00etara.

### Akatsak zuzenduz

Martxoaren 17ko NOAUA!n, Zubietako Yoko Garbi Elkartearen inguruko gutuna argitaratu genuen. Gutuna elkarteak berak sinatzen zuela genion, baina ez da hala. Herritar talde baten izenean helarazi ziguten idatzia. Barka eragozpenak.

### Ordu aldaketa

Astelehenean murgildu ginen ofizialki udaberrian. Erlojuak udako ordutegira egokitzeke unea ere heldu da. Larunbatetik iganderako goizaldeko 02:00etan 03:00ak izango dira. Honenbestez, ordulariak ordubete atzeratu beharko ditugu.

# noaUA

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaUA.eu // www.noaUA.eu

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

#### Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

#### Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.

**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.eu

**Diseinu berria:** Erroitz S. L

#### Erredakzio kontseilua,

**erredakzioa@noaUA.eu:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

**Tirada:** 2.800 ale.

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Maialen Unanue

## Nola heldu ote garen honaino

**I**kasi, ikasi, ikasi. Lehenengo DBH, gero batxilergoa, gero unibertsitatea, gero masterra. Lau, bi, lau, bat. Gutxienera jota, 11 urtez (LHkoak eta kenduta) ikasteko esan ziguten (hori dena lehenengoan gaintuz gero). Ikasketak izanez gero, ate guztiak irekiko zitzaizkigula. Eta guk ikasi egin genuen. Batetik besterako saltoan bakoitzak erabaki behar zuen nondik jo: batzuek ate gehiago zerk irekiko ote zizkion pentsatuz, beste batzuek gustatzen zitzaienera joz. Beste gauza bat da dena eginda eman zaion nerabeak zenbateraino duen gaitasuna erabakitzeko zer izan nahi duen etorkizun ez hain urrutikoan.

Dena ondo bidean, hogeitagutxirekin egiten dituzu lehenengoz praktikak enpresa batean, suerte pixka batekin.

Eta ia hogeitaguztiekin lortu duzu zure lehenengo kontratu luzea. Zure formazioa ustez bikaina da, horra arte dena primeran; baina bizitza hortik aurrerako guztia da. Lan munduan sartzea, egonkortzea, aurrera egitea. Hori guztia gaintu eta enpresan karguz igo duten Jezabel da 'Nola heldu naiz ni honaino' nobelaren protagonista. Gure belaunaldikoa. Ustez galtzeko batere eta dena irabazteko duen belaunaldikoa. Bai baitago aberats izan gabe eroso bizi den gazte jendea, Kattalin Miner idazlearen esanetan. Erabakiak hartzeko duen gaitasunagatik igo dute karguz Jeza, eta nobelaren horixe du etengabeko lana: erabakiak hartzea. Hori baita, idazlearen arabera, gure belaunaldiari esan zaiona: dena irabazteko daukagunez, zer nahi dugun erabakitzea dela egin behar dugun gauza bakarra.

Ustez potoloak diren erabakiak ez bairik gabe hartzen ditu. Eta, halako batean, erabaki txoro batek ez aurrera ez atzera utziko du. Are, ordura arte hartutako guztiak eta hortik aurrerakoak zalantzan jartzen hasiko da. Liburutik hartua: "Izan ere, dena irabazteko genuen belaunaldi eta klase jakin batekoak izateak ardura hori exijitzen digu sarri, eta irabazi ezean ez da gure errua besterik; izan ere, dena izan dugu alde, baina pentsatzen nabil, dena irabazteko genuen belaunaldia baino gehiago, ez ote garen ezer galdu ezin duen belaunaldia".

Ez osotasunean, baina hein handi batean bat egin dezake gure belaunaldiko irakurleak Jezarekin. Bere pentsamenduekin. Etengabe erabaki beharrak sor dezakeen neurosiarekin, eta, batez ere, zer bait lortu ezinak sortzen duen

ezintasun edo erruduntasunarekin. Zenbait egoeratarata nola heldu garen ondo jakin gabe ikusi duelako bere burua. Etengabeko erabaki kate horretan non egin duen huts asmatu ezin duelako. Esan ziotena eginda -ikasi, ikasi, ikasi-, ustez eskura izango zuen hori pauso bat eman orduko pauso bat urrutiago ikusten duelako. Frustrazioa pertsonalki sentitzen dugulako, akats propio gisa. Egonkortasuna sekula ailegatzen ez delako. Kontrara, ezegonkortasunak agintzen duelako bere bizitzan. Zeinek daki, ezegonkortasun eta frustrazio kronikoa izan daitezke gure belaunaldiaren gaitza.

[Bide batez: pare bat eserialditan irensten da liburua, erraz; guztiz gomendagarria]

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | **Maialen Unanue** | Garazi Lizaso Manterola | Luken Arkarazo | Idoia Torregarai | Luis Aranalde

### Ika-Mika

## Alternatiba dagoelako errausketarik ez!

**E**rrausketaren Aurkako Mugimenduak alternatiba bat plazaratu du hondakinen arazoari konponbide bat emateko. Birziklatu edo konpostatu ezin daitezkeen hondakinak (errefusa) erraustu beharrean irtenbide osasuntsu eta merkeago bat eman ahal izateko.

Ez dugulako gure hondakinak tratatzeko azpiegitura garesti, kutsakor eta alferrikakorik nahi. Ez dugulako nahi gure eta gure ondorengo osasuna kaltezerik, ez dugulako nahi gure dirua xahutzerik ezta enpresa multinazionalen gure diruarekin negozioa egin dezaten, aldi berean herritarrentzako premiazko zerbitzu publikoak murriztuz.

Gipuzkoan demostratzen ari gara, aspalditik eta egunero, ez dugula hondakinak erre beharrik tratatzeko. Demonstratu dugu gai garena, bilketa on bat eginda, hondakinen parte oso handi bat aprobetxatu eta errefus kiloak jaisteko, eta erretzea ez den beste alternatiba bat emateko azken errefusari.

Baina nahitaezkoa da udalerririk askok egin duten bideari beste guztiak ere jarraitzea, ez baita onargarria batzuek 50 kg errefus azpitik botatzea, pertsonako eta urteko, eta beste batzuek 250 kg edo 300 kg botatzen segitzea. Ez da onargarria eta ez da justua.

Eta administrazioak lagundu egin behar du bide horretan:

hasteko, gaika ondo biltzeko sistema eraginkorrak ezartzen Gipuzkoa osoan, eta era berean gaika ondo bildutako hondakinak ondo tratatzeko azpiegiturak prestatzen. Urgentziazkoa da Gipuzkoak dagoeneko organikoarentzako dauzkan azpiegiturak hobetzea eta behar diren berriak sortzea.

Zer dela eta gastatu behar ditugu 212 milioi erraustegia eraikitzen eta 700 edo 1.000 milioi, horiek kudeatzen?

Gipuzkoak puntako herrialdea izan daitezke hondakinen kudeaketa burutsu eta iraunkorrean. Baina, baita ere, gertatu gaitzke azken muturrean, herrialde kutsakor eta morroi

geldituz, gure agintariek erraustegiaren apustua egin dutelako.

Garaiz gaude oraindik gauzak ondo egiteko. Martxoaren 25ean manifestazioa egingo dugu Donostiako kaleetan. Manifestazio handia izatea nahi genuke. Hor bilduko gara **ERRAUSTEGIRIK EZ** esateko eta beste jendarte eredu bat aldarrikatzeko.

**Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldea, Usurbilgo udal langileak, Hurbilago, Udarregi Ikastola, Usurbilgo Aralar, Usurbilgo EH Bildu, Kantu Taldea, Ernai, Andatza mendi elkarte, Udaletzeko ELA-LAB, Gaztetxea, Usurbil K.E, Viuda e Hijos de Jeronimo Izaguirre SL-ko LAB.**



# Ordu erdi beranduago hasiko da azken ostiraleko elkarretaratzea

**O**latz Lasagabaster, Patxi Uranga eta gainerako euskal preso eta iheslarien eskubideen alde Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak deitutako hileroko mobilizazioa, astebete barru, martxoaren 31n izango da Mikel Laboa plazan. Baina ohi baino ordu erdi beranduago, 20:00etan beharrean 20:30ean, aurretik beste ekitaldi bat iragarria baitago. Apirilaren lehenerako berriz, presoiei prentsa helarazteko harpidetza afaria antolatu dute 21:00etan Aitzaga Elkartearen. Afaritarako txartelak salgai dira Aitzagan eta Aizpurua okindegian.

## Xuaren gutuna

Aurreko astean gutun hau iritsi zen NOAUA!ra:

“Muxuak Picassentetik, kaixo denei!

Xua naiz eta eskerrak eman nahi dizkizuet niri ongi etorria eman ez eta amonari, amaxori eta aitaxori elkartasuna adieraziz, idatzi eta elkarretaratzeetan bildu zareten guztiei. Udalari ere bai, egindako guztiagatik. Eta bereziki, txoko-marrubizko muxu pila helarazi nahi dizkizuet marrazki polit-polittak bidaliz, ama-



20:30ean hasiko da martxoaren 31ko elkarretaratzea. Apirilaren 1ean, harpidetza afaria egingo dute Aitzagan. Txartelak Aitzaga tabernan eta Aizpurua okindegian ipiniko dituzte salgai.

## USURBILEN NAHI DITUGU

**“Apirilaren lehenerako presoiei prentsa helarazteko harpidetza afaria antolatu dute 21:00etan Aitzaga Elkartearen. Txartelak salgai Aitzagan eta Aizpurua okindegian”**

txorekin partekatzen dudan ziega koloreztatu didazuen laguntxo berriei. Orain politagoa dago, zuen alaitasunak edertua. Leku itsusia da hau eta jende triste atea zabaldu eta ixten diguna. Baina amaxok

dio hemen ez gaudela betiko. Zoragarria den herri batekoak garena, Usurbil izena duela eta gure toki bertan dagoela, amonarekin eta zuekin. Aita-txo ere antzera mintzo da, ijitoa izanik hasieratik bat gehiago bailitzan hartu zenutela eta zuen aurrean txapela kentzen duela. Handiagoa naizenean hor biziko garena diote, baina aurrea lortu behar dugula amona sendatzea eta aitaxo beste nonbaitera ez eramatea. Zuen babesarekin eta gure grinarekin seguru lortuko dugula. Eskerrik asko denoi eta tori pa guztientzat.

Xua Lasagabaster Uranga”

## Euskotreneko langileek lan uzte gehiago iragarri dituzte

Lan uzte partzial gehiago iragarri dituzte Euskotreneko langileek. Honenbestez, gutxieneko zerbitzuak egongo dira, martxoaren 16, 18, 20, 22, 24, 28 eta 30ean. Baita apirilaren 1, 5, 7, 11, 13, 15, 17, 19, 21, 25, 27 eta 29an. Aipatu moduan, gutxieneko zerbitzuak ez dira egun osoz izango, ordu tarte jakinetan baizik. Momentuz, martxoaren 16, apirilaren 3, 5, 7, 25 eta 27ko gutxieneko zerbitzuen ordu-tegia zehaztu dute: 6:25-8:35 artean eta 17:25-19:35 artean izango dira, Zumaia-Donostia eta Lasarte-Hendaia lineetan.

## Informazio gehiagorako:

944 333 333

euskotren.eus

Twitter: @euskotrenEJGV

Lan uzteak egiten ari diren langileen berri: Euskotren Amarako Langileak (Facebook)

@EuskotrenAmara (Twitter)



Apirilaren 27ra arteko lanuzteak iragarri dituzte.

## Ikka-Mika

# Sorturen herri batzarra larunbatean

**K**aixo lagun, uztailearen 21ean hasi genuen Sorturen fase kongresuala, bertan Sorturen ildo politikoa, oinarri ideologikoak eta antolakuntza ereduak birpentsatu, eztabaidatu eta eguneratu ditugu Euskal Herriko herri, hiri eta auzo ezberdinetan. Kongresua Bilboko Euskalduna jauregian 2017ko urtarrilaren 21ean burutu dugu eta orain, Sortu berri hau paperetik atera, herri eta

auzoetan antolatu, forma eman eta martxan jartzeko unea iritsi zaigu.

Usurbilen abenduan egindako batzarrean, Sortuk herrian izan behar dituen funtzio eta lehentasunez jardun ginen. Bertan, eztabaidatu eta adostutakoak jasotzen saiatu gara eta eskutitz honekin batera bidaltzen dizkizuegu. Gauzak horrela martxoaren 25ean, 10:00etan Potxoenean egingo dugun batzarraren deial-

dia luzatzen dizugu. Bertan, bidaltzen dizuegun dokumentua aztertu eta eztabaidatuko dugu eta zuzendu beharrekoak, gehitu edo kendu ondoren, Usurbilgo Sortuk izan behar dituen funtzio zein lehentasun horiek finkatuko ditugu.

Horrekin batera, guztia egikaritzeko mekanismoak eta baldintzak martxan jartzea izango dugu helburu, horretarako birfundazioa burutu duen lan

taldeak antolaketa proposamen bat luzatuko du. Batzarrean bertan proposamenari ekarpenak egin ahal izango dira. Proposatutako taldean norbaitek aritu nahi badu ere, esan beharrik ez dago, gustura jasoko dugula ekarpena.

Sorturen birfundazioan parte hartu dugun guztiak elkartzea da gure nahia. Bertan ikusiko garelakoan, Gora Herria!

**Usurbilgo Sortu**

## V. Dantza Eguneko dantzarien bazkarirako txartelak salgai

**A**pirilaren 8an ospatuko den 5. Dantza Eguna-  
ren baitan, dantzariak  
gingo duten bazkarirako  
txartelak salgai daudela ohar-  
tarazi du Orbeldi Dantza Tal-  
deak. Ostiral honetara arte  
hain zuzen, martxoak 24, tal-  
deak Oiardo Kiroldegian duen  
entsegu saioen tokira gertura-  
tuta eskura ditzakezue.

### Egitarau aurrerapena

Bosgarren edizio honen hari-  
ra, ohi baino ekitaldi gehiago  
antolatu ditu Orbeldik, Dantza  
Egunaren bueltan. Honatx au-  
rrerapena, zehaztasun gehiago  
hurrengo astekarian:

■ Apirilak 6-8, aurreko Dantza  
Egunen argazki erakusketa Su-  
tegin. Ion Markel Saez de Ura-  
bainen irudi bilduma ikusgai.  
■ Apirilak 7, 19:30 Donostiako  
musika eta dantza eskolakoen  
dantza klasikoko erakustaldia  
Sutegin.



Apirilaren 8an ospatuko da Dantza Egunaren bosgarren edizioa.

■ Apirilak 8, 5. Dantza Eguna:  
10:30 Dantza taldeen harrera. 12:00  
11:30 Argazki ofiziala. 13:30  
Kalejira geldialdiekin. 14:30  
Ekitaldia frontoian. 18:00  
Dantzarien bazkaria. 18:00  
Ttipika taldearekin dantzaldi  
girotua. 22:30 "Indiana Jones  
eta kaliz sakratua", Orbeldi  
D.T-ren ikuskizuna.  
■ Apirilak 9, 13:00 Mikel La-  
boa plazan: Tioteronen Se-  
meak taldearen "Fresh-cool"  
kale ikuskizuna.

## Martxoaren 29an, Yolanda Arrietaren saio ludiko-praktikoa udal liburutegian

"Aho bete amets... saio ludi-  
ko-praktikoa, Yolanda Arrie-  
tarekin". Aho bete amets edo  
zergatik (eta nola) parteka-  
tu aho-jolasak, ipuinak, li-  
buruak... 0-5 urte bitarteko  
haurrarekin". Guraso, hezi-  
tzaile, irakasle eta bitarteka-  
riei zuzendutako saioa, mar-  
txoaren 29an, arratsaldeko  
18:00etan Sutegi udal liburu-  
tegian.

### Euskarazko literatura topaketan, '33 ezkil' aztergai

Apirilaren 26an asteazkena,  
Miren Gorrotategiren "33 ez-  
kil" eleberria aztertuko dute  
19:00etan Sutegi udal liburu-



Guraso, hezitzaile, irakasle eta bitartekariak zuzendutako saioa eskainiko du.

tegian Pako Aristik bideratuko  
duen saioan. "Liburuaren ale  
ezberdinak jada Liburutegian  
daude eskuragarri; izan ere,  
liburua aldeztu aurretik irakurri-  
z gero, etekin handiagoa aterako  
baitiogu topaketari", ohar-tara-  
zi dute antolatzaileek.

### Ipuin kontaketa saio bikoitza

Maite Frankok bitan bisita-  
tuko du Sutegi udal liburu-  
tegia, apirilaren 4an eta  
6an, 18:00etan. Hilaren 4ko  
hitzordua HH4koei zuzen-  
dua egongo da, hilaren 6koa  
HH5koei.



Maite Franko bitan izango da Sutegin: apirilaren 4an eta 6an.

### Kutxa Kultur Festibalerako bonoak salgai

Irailaren 15 eta 16an Zubie-  
tako hipodromoan ospatuko  
den jaialdirako bonoak sal-  
gai jarri ditu antolakuntzak.  
Hauek dira gaurkoz, 2017ko  
Kutxa Kultur Festibalean par-  
te hartuko duten musikari  
parte hartzaileen zerrenda:  
The Jesus and Mary Chain,  
The Hives, The Divine Co-  
medy, Hercules and Love  
Affair, Love of Lesbian, Jere-  
my Jay, Amateur, De Pedro,  
Kokoshca, Zea Mays eta Va-  
nessa Zamora.

### Martxoaren 28an, Jai Batzordearen bilera Potxoenean

Ekainaren 29tik uztailearen  
2ra ospatuko diren Usurbil-  
go jaiak antolatzen segitze-  
ko hirugarren bilera deitu  
du Jai Batzordeak, datorren  
astearterako, martxoak 28,  
arratsaldeko 18:00etan Po-  
txoenean. Gogoan izan, jaiak  
antolatzeko ereduak, egiteko  
moduak aldatzeko lanketa  
betean dela Jai Batzordea.  
Batzarra eragile nahiz herri-  
tarrentzako zabalik izango  
da.

# Korrikarako girotzen

**A**pirilaren 4an Korrika gure artera heldu aurretik zenbait hitzordu antolatu ditu Korrika Batzordeak:

## **Apirilak 1, larunbata: mus txapelketa**

15:30 Mus txapelketa Txiribogan (izen ematea, 15:30-16:00).

## **Apirilak 2, igandea: kontzertua frontoian**

18:30 Olatz Kortaren musika emanaldia frontoian.

## **Apirilak 4, asteartea: Korrika**

Arratsaldean, Korrika Txiki. 23:39 20. Korrika Zubieta, Usurbil eta Aginagan. Antolatzailea: Korrika Batzordea.



**Apirilaren 4an Korrika Txiki egingo da arratsaldean. Gaueko 23:39an iritsiko da Korrika.**

## **NOAUA!ren lekukoa eramateko deia**

Apirilaren 4an, gaueko 23:39an iritsiko da Korrika. Lasartetik sartu eta Zubieta, Usurbil eta Aginaga zeharkatuko dituen ibilbidean zehar, lekukoa hartuko dutenen artean izango dugu NOAUA! Kultur Elkarte.

Duela bi urte bezala, lekukoa zuek, NOAUA!ko bazkideok eramatea nahi genuke. Talde txo bat osatu nahian gabiltza. NOAUA! kide bazara, deitu 943 360 321 telefono zenbakira edo idatzi elkarte@noaua.eus helbidera, martxoaren 24a baino lehen.

# Errigoraren azken kanpainan, 52 eskaera jaso ditugu NOAUA!n

Esku-orrien bidez 30 eskaera eta Internetez beste 22 eskaera jaso ditugu NOAUA!n. Guztira honenbestez, 52 lagunek eskatu dituzte, Errigorak abian jarritako "Uztaberria" elkartasun kanpainen baitan, eskuragarri zeuden Nafarroa hegoaldean ekotzitako oliba-olio bidoi eta kontserbak. Adi orain banaketei. Oliba olio bidoiak martxoaren 30 eta 31n banatuko ditugu NOAUA!n bertan. Kontserbak ekainaren 1 eta 2an, NOAUA!ren egoitzan baita. Produktuok jasotzerakoan egin beharko dituzue ordainketak. Argibide gehiagorako: [errigora.eus](http://errigora.eus) 943 360 321 [elkarte@noaua.eus](mailto:elkarte@noaua.eus)



**Oliba olio bidoiak martxoaren 30 eta 31n banatuko ditugu NOAUA!n bertan. Kontserbak, ekainaren 1 eta 2an.**

## **Urtarrileko langabetu kopuru berbera otsailean**

Urtarrileko datu bera erregratatu da otsailean ere. 272 langabetu zenbatu ditu Estatuko Enplegu Zerbitzuak joan den hilabetean Usurbilen.

Kontratazioei dagokionez, gizonetako gehiago (178) kontratatu dira otsailean, emakumeetako (119) baino. Erregistratu diren kontratu ia denak, 297tik 189, aldi baterako hitzartu dira.

## **Gazte Akelarreako bonoak, Aitzagan salgai**

Ernai eta Aitzina gazte erakundeek "Gazte Akelarrea" antolatu dute apirilaren 13tik 16ra, Zornotzatik Igorrera. Oraingoan, martxa eta topagunearen arteko nahasketak bat izango da. Apirilaren 13an mendi martxarekin abiatuko da Zornotzatik eta gauez heldu Igorrera, gero bi egunez bertan izango dira. Kontzertuak, hitzaldiak, tailerrak antolatu dituzte Igorren. Apirilaren 16an berriz Gernikako Aberri Egunera joango dira. Hiru egunotarako bonoak salgai daude 35 eurotan Aitzagan. Prezio horren baitan, hiru eguneko egitaraua, akanpalekua, dutxak eta gainerako eskaintzak gozatzeko aukera. Eguneko sarrera solteak ere salgai jarriko dituzte 15 eurotan beste hainbat txokotan. Informazio gehiago: [gazteakelarrea.info](http://gazteakelarrea.info)



**Huntza taldekoak arituko dira, besteak beste, Gazte Akelarrean.**

# Erraustegiaren alternatiba babesteko, herri mobilizazio handia larunbatean

**G**araiz gaude oraindik gauzak ondo egiteko, gogorarazten zuen Errausketaren Aurkako Mugimenduak martxoaren 18an, Donostiako Anoeta futbol zelaiaren egindako agerraldian. Bertan bildutako norbanako nahiz eragileek, babesa adierazi eta bultzada eman zioten, larunbat honetarako Gipuzkoako hiriburuan deitua dagoen manifestazioari.

“Alternatiba dagoelako, errausketarik ez” aldarripean egingo den mobilizazioak Donostia erdiguneko kaleak zeharkatuko ditu 17:00etan Anoetatik abiatu eta Bulebarrreraino. “Manifestazio handia izatea nahi genuke. Hor bilduko gara “erraustegirik ez” esateko eta beste jendarte eredu bat aldarrikatzeko”, iragarri dute. Gipuzkoako Foru Aldundian agintean diren alderdiei mezu argia helarazi nahi diete: “Gelditu ezazue proiektua, hartu ezazue hondakinen kudeaketa onaren norabidea. Egin kasu herritarrok eskatzen dizuegunari”.



80 eragileek baino gehiagok babesa adierazia diote Errausketaren Aurkako Mugimenduak larunbaterako Donostian deitu duen manifestazioari.

## LARUNBATEAN

**“Manifestazio handia izatea nahi genuke. Hor bilduko gara ‘erraustegirik ez’ esateko eta beste jendarte eredu bat aldarrikatzeko”**

**EHBildu: “Bada alternatiba, larunbatean Donostiara”**

Usurbilgo EHBilduk bat egin du larunbateko manifestazioarekin eta Donostiara joateko deia luzatu du agiri honen bidez: “Bada denbora ordezka-

ri politiko jakin batzuek gure herria bidegurutze batera eraman zutela. Usurbilgo herriari erraustegiaren proiektua ezarri zitzaion. Herriaren iritzia errespetatu gabe jarri zuten martxan proiektua. Orduz geroztik ikusgarria izan da herri honek demostratu duen indarra eta duintasuna. Zubietan eraiki nahi diguten makro proiektuari argi esan zion ezetz Usurbilgo herriak, hori gutxi ez eta Gipuzkoan egun dagoen hondakinen kudeaketa sistema eraginkorrenetako bat jarri genuen martxan, zenbait instituzio eta alderdiek behin

eta berriz mespretxatu izan dutena.

Usurbilek egunero erakusten digu posible dela hondakinen kudeaketa jasangarri bat. Usurbil 0.0 plana oinarrian beste pauso bat emango dugu aurrera. Batzuk beraien bulegoetatik gauzak inposatzen diharduten honetan guk alternatiba posibleak indartzen jarraitzen dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarren hitzaren ginetik errauste planta irekitzea erabaki duen honetan, inoiz baino legitimoagoa eta beharrezkoagoa ikusten dugu kalera ateratzea.

Usurbilek erakutsi duen ardua berberarekin jokatzeko eskatzen diegu instituzioei. Herri honek herri galdeketa baten bidez emandako iritzia errespetatzeko eskatzen diegu Foru Aldundiari. Demonstratu dugu hondakinak kudeatzeko beste modurik badela, goazen guztiok hilaren 25ean osasunaren eta duintasunaren aurka eraiki nahi diguten errauste plantari ezetz esatera. Usurbilgo EH Bildu bertan izango da, animo guztioi! Lortuko dugu”.

## Manifestazioak babes zabala eta anitza lortu du

Ingurumen, hezkuntza, parekidetasun, kultur edota kirol eremuan lanean diharduten eragileak, sindikatuak, alderdi politikoak... Aste hasierarako, guztira jada 80 eragileek baino gehiagok babesa adierazia zioten, Errausketaren Aurkako Mugimenduak deituriko manifestazioari.

### Deialdiak

■ Atxikimendu bilketa kanpaina parte hartzeke deia. Atxikimendu orria [erraustez.org](http://erraustez.org) atarian duzue.



Errausketaren Aurkako Mugimenduak egin duen deialdiarekin bat agertu ziren argazkian ageri diren udal langileak.

■ Eragile bakoitzak bere aldarrikapenekin eta martxoaren 25eko manifestaziora

gonbidatuz, bideo labur bat grabatu eta oinarri sozialean zabaltzeko deia egin dute.

### Martxoak 25, larunbata

■ 17:00 Erraustegiaren alternatiba babesteko herri mobilizazio handia “Alternatiba dagoelako, errausketarik ez” aldarripean, Donostiako Anoeta futbol zelaitik Bulebarrrera. Manifestazioaren baitan “mikro manifestazio” desberdinak egongo direnez, haien aldarrikapenak zabalatzeko makildun pankartekin agertzeko deia egin diete eragileei.

■ Deitzailea: Errausketaren Aurkako Mugimendua.




# HAUR ESKOLA

0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO  
2015, 2016 eta 2017 urteetan jalotako haurrei zuzendua

- **MATRIKULA EPEA:** apirilaren 3tik 7ra eta apirilaren 24tik 28ra. Kalezarren.
- **HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA:** 7.30 -16.30
- **EGUTEGIA:** astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila
  - **MATRIKULAZIORAKO HITZORDUA:** 943 37 40 61 telefonoan 8.30etik 12.00etara
- **ATE IREKIEN EGUNA:** apirilaren 3an, astelehena. 17:00etan euskaraz eta 18:00etan gaztelaniaz

Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizueke, epez kanpoko izen emateei ezin baitiegu plaza eta ordutegia bermatu.

 **943 374 061**

## ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

2 etxebizitza gelditzen dira!

AZKEN 2  
ETXEBIZITZAK!

12 ETXEBIZITZA  
INGURUNE PAREGABEAN  
**Agerreazpi<sup>n</sup>**

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

**USURBILEN**

VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1<sup>o</sup> Behea  
20009 Donostia

E: [contacto@viviendaslanin.com](mailto:contacto@viviendaslanin.com)

**943 46 88 60**

[www.viviendaslanin.com](http://www.viviendaslanin.com)



# Herriko musika sorkuntza, plazara

**L**au hornen barruan gogotsu egiten duten lanketa plazaratzeko tartea hartu ohi dute Zumarte Musika Eskolako kideek, urtean zehar antolatutako dituen ekintzen baitan. Amaitzean dugun 13. Soinurbil Musika Aspetean bezala. Larunbat eguerdiko 12:00etan hasita, herriko musikariek hartuko dute Mikel Laboa plaza. Zumarteren altxoan jaio, hazi eta hezi diren The Hastelen's, Ganbarakada, Zappa eta Nesquik taldeen musikaz gozatu ahalko dugu.

Ixaksonak taldeko kide Lide Pagola (ahotsa eta kitarra), Ainhoa Illarramendi (kitarra), Alex De Miguel (baxujolea), Ane Aizpuru (kitarra), Enara Egizabal (baterijolea) eta Olatz Allurrekin (ahotsa eta kitarra) partekatuko dute oholta.

## Pop-rock taldea

Ixaksonak duela 6 urte osaturiko pop-rock taldea dugu. Seikoteak hirukote gisa ekin zion ibilbideari. Talde kideak batu ahala, "gitarra elektrikoarekin jotzera igaro ginen, bateria egokitu eta talde rockero baten antza" hartzera heldu ziren. Estilo definiturik ez diotela



**Ixaksonak taldeko kideekin izan gara hizketan. Larunbatean Mikel Laboa plazan arituko dira beste talde batzuekin batera.**

### IXAKSONAK

**"Lide Pagola, Ainhoa Illarramendi, Alex De Miguel, Ane Aizpuru, Enara Egizabal eta Olatz Allurrek osatzen dute taldea"**

aipatzen dute, baina pop-rock joeratik gertu kokatzen dute taldea.

"Oso estilo ezberdinetako kantak, gure ustez abesti onak, denen gustukoak izango diren abestiak, lasaiak, rockeragoak,

maila guztietakoak" entzun ahalko ditugu martxoaren 25eko kontzertuan, taldeak aurreratu digunez.

## Auditoriotik plazara

10 urte zituztela zapaldu zuten lehen oholta; Sutegiko auditoriokoa. Gogoan dute estreinako egun hura. Urduritasunaz, baina baita izandako bizipen atseginez. Ikasturte amaieran Zumartek antolatzen dituen kontzertuetan izan zen. "Ken Zazpiren Zapalduen Olerkia izan zen, jo genuen lehen abestia. Lehen

esperientzia ona izan zen", oroitzen dute. Geroztik, Askatasuna plazan edota frontoian emanaldi gehiago eskaini izan dituzte. Kultur etxetik kalera emandako jautzia nabaritu zuten. "Sutegin ere dena ilun dago eta ez duzu ikusten jendeak nola erreazionatzen duen. Frontoian zaudenean, ikusten duzu jendeak zer aurpegi jartzen duen eta sententzia ezberdina da", diote taldekideek.

Urte luzez oholta gainetan ikusi ditugun herriko taldeei erreparatzen badiegu, gehienegoz neskez osaturiko talde bakarrenetarikoa dugu Ixaksonak, larunbatean ere entzungai izango ditugun Nesquik taldekoekin batera. Musika taldea izatea, "mutilentzako errazagoa eta normalagoa dela dirudi Usurbilen eta ia leku guztietan", adierazi digute Ixaksonak taldeko kideek.

Eskolatik plazarako jautzia ematea kostatzen dela dirudien arren, errealitate hau aldatu daiteke aurrerantzean. Ixaksonak taldeko kitarra joleen irakasle Ixak Arrutiren esanetan, "ikasle gehiago dituzten neskak, mutilak baino. Kantak sortu eta ateratzen bultzatzen saiatzen gara".

## 13. Soinurbil, azken txanpan

### Martxoak 23, osteguna

■ 19:00 Beasaingo musika eskolako bisita Sutegin.

■ Zehaztasunak: "Beasaingo Loinatz Musika Eskolako Usurbilera etorriko dira urtean zehar eginiko lana erakustera".

■ Sarrera: doan.

### Martxoak 24, ostirala

■ 20:00 Rockalean ikuskizuna

kalean.

■ Zehaztasunak: "Herriko kaleetako edozein lekutan jo dezakeen Rock talde bat imajinatzen al duzu? Ba horixe da RocKalean! Rock eta Pop estiloko kantu ezagunek osatzen dute gure kantu-zerrenda".

### Martxoak 25, larunbata

■ 12:00 Zumarteko pop-rock

taldeen kontzertua Mikel Laboa plazan.

■ Zehaztasunak: "Adin desberdinetako ikasleak izango dira bertan parte hartuko dutenak eta dagoeneko emanaldi ugari eskaini dituztenak dira, taldeen izenak hauek dira: Zappa taldea, Nesquik Taldea, Ixaksonak Taldea, Ganbarakada Taldea eta The Hastelen's Taldea".

### Martxoak 26, igandea

■ 12:00 Azkoitiko musika bandaren kalejira eta kontzertua.

■ 12:00 Kalejira.

■ 13:00 Kontzertua frontoian.

■ Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.

■ Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia.



## “Denontzat lekua dago Zumarten”



Argazkiko gurasoek eta hurrek “LaLaLa soinu gela” ikastaroan hartu zuten parte aurreko larunbatean. Argazkia: Zumarte.

Musika instrumentu batean trebatzen ari den ikaslearentzat ikasten ari den hori plazara ateratzeak, ikasitakoa praktikan jartzen ahalbidetzen dio eta motibagarria suerta daiteke. “Abestiak taldean gusturago jotzen dira. Zure lana jendaurrean eta taldean erakusteak motibatzen zaitu. Hasieran esperimentatzen zoaz, baina indartzen joan ahala, gozatu

### IXAKSONAK

**“Abestiak taldean gusturago jotzen dira. Zure lana jendaurrean eta taldean erakusteak motibatzen zaitu”**

egiten duzu”, diote Ixaksonak taldetik.

Ibilbide honi eusteko asmoa

dute etorkizunean Ixaksonak taldekoek. Baina haratago joatera ere animatzen ditu Ixakek. Zumartek antolaturiko ekitaldietan soilik ez, modu autonomoan, taldeok musika eskolatik kanpoko bestelako ekimenetan ere parte hartze- ra. Musika zaletasunari bidea ematen hasi nahi dutenei ber- riz, Zumarten “denontzako lekua dago” gogorarazten du.

### Lan deialdiak

#### Udajolaserako arduraduna eta begiraleak behar ditugu

Zehaztasunak: Usurbilgo Udalak eta NOAA! Kultur Elkartek uztailean antolatu ohi duten Udajolas aisialdiko ekimenerako arduradun eta begiraleak behar dira.

Profila:

- 2 urteko esperientzia.
- Zuzendari titulua izatea.
- Begirale titulua izatea.
- EGA edo baliokidea den agi- ria izatea.
- Sexu delitua egiteagatik aurrekari penalak ez dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Usurbildarrek lehentasuna izango dute.

#### NOAUA! banatzeko ordezkoen lan poltsa

Zehaztasunak: Gaur egun- go banatzaileen batek bere lana utziko balu, ordezkoa beharko genuke. Horretarako osatu nahi dugu lan-poltsa. Lan deialdion inguruko in- formazio gehiagorako eta Curriculumak bidaltzeko: [elkarte@noaua.eus](mailto:elkarte@noaua.eus)  
943 360 321  
Bordaberri, 3

## Usurbilgo Lanbide Eskolako biltegi adimentsua, Teknopolis saioan

ETBko Teknopolis saiokoak Usurbilgo Lanbide Eskolan izan dira, biltegi adimentsuaren inguruko erreportajea grabatzen.

Lanbide Eskolatik aditze- ra eman dutenez, “grabazio honen helburua Usurbilgo Lanbide Eskolako Mekani- ka alorrak martxan jarritako RFID teknologiaz hornituriko biltegi adimentsua ezaguta- raztea da”.

Mekanikako alorreko par-



Grabatu duten erreportajea apirilaren hasieran eskainiko dute.

taideek bi urtez egindako lanaren ondorio da biltegia. “Lehenengo urtean biltegia-

ren plangintzan, behaketan, diseinuan eta kudeatze siste- men azterketan aritu baziren,

bigarrenen biltegiaren gau- zatze materialean oinarritu dira. Biltegi honetan 2.000 tresnatik gora jasotzen dira. Tresna hauek Mekanika alor- ra osatzen duten 150etik gora ikasleek eta irakasleek erabiltzen dituzte”, Lanbide Eskolakoek hala esanda.

Aurreikuspenak betetzen badira, apirilaren 8ko Tek- nopolisen eskainiko dute erre- portajea, ETB 1ean eguerdiko 13:30ean. Eta apirilaren 9an ETB2n, goizeko 10:00etan.



**Klik! batean**

## Agerikoak eta ezkutukoak

Salbatore elizako organoak 30 bat hodi ditu begibistan. Gehiago dira, ordea, bere barrunbeetan ezkututzen direnak. Pentsa, 2.600 hodi ditu guztira. Hodi horietako bakoitzak du bere soinua. Hodi horietako bakoitzak du bere funtzioa.

1907. urtean Parisko Mutin Cavallé-Coll lantegietan egin, munduko organo ospetsuen katalogoetan ageri da gaur egun.

Argazkia: Ion Markel







# “Nahi al duzu Euskal Herria Estatu independentea izatea?”

**M**aiatzaren 7rako Usurbilen egingo den herri kontsultak galdera ere badu jada. Martxoaren 19an aurkeztu zuen Herritzartuk, Munalurran ospaturiko Bizi Kalea ekimenaren baitan. “Nahi al duzu Euskal Herria estatu independentea izatea?” horratx usurbildarrei egingo zaigun galdera maiatzeko lehen igandean. Txalo artean hartu zuten herritarrek galderaren hautaketa, eta bide batez, esker ona adierazi zitzaizen zeregin honetan parte hartu duten herritar eta lan talde anitz eta zabalari.

Parte hartze prozesu baten emaitza izan baita, kontsultarako erabaki den galdera. Herritzartuk argi zuen hasieratik, ahalik eta herritar gehien iritzia aintzakotzat hartu behar zela. 3 galdera posible proposatu eta hauetako baten, egokienaren alde bozkatzeko aukera izan dute herritarrek bide ezberdinetatik, azken asteotan. “Guztira 164 iritzi jaso dira. Benetan pozik egoteko moduko erantzuna izan da. Gustoa ematen du halako erantzunarekin lan egitea”, adierazi zuten Herritzartuko kideek.

## Aurkezpena, egun seinalatuan

Galdera aurkezteko ez zuen edozein egun hautatu, galdeketa antolatzen ari den herritar taldeak; egun seinalatu bat baizik. “Gaurko eguna, martxoaren 19a, data garrantzitsua da herri eta herritar orok duen erabakitze eskubidearen aldarrikapenean. Euskal Herriaren estatus politikoa erabakitze dugun eskubidearen defentsarako eraikitzen ari gara marea handi bat”, zioten, aurreko igandean Herritzartuk ospaturiko ekitaldian.



Aurreko igandean aurkeztu zen maiatzaren 7ko galdeketa erantzun beharreko galdera.

## HERRITZARTU

**“Guztira 164 iritzi jaso dira. Benetan pozik egoteko moduko erantzuna izan da”**

Marea handi horren baitako lehen olatua osatu zuten hilaren 19an, 35 udalerrik guztira.

Zehazkiago esanda, Oarsoaldea, Tolosaldea, Hernani, Astigarraga eta Larrabetzun galdeketa ospatu zituzten. 120.000 herritar inguru deituak zeuden bozka ematera. “Bihoa beraiantzat gure animurik indartsuena”, adierazi zieten txalo artean Munalurritatik.

## Galdera adosteko prozesuko emaitzak

■ Parte hartzea: 164 iritzi jaso

dira.

■ Galdera posible bakoitzak jaso duen gutxi gorabeherako babesa:

■ %19: “Ados al zaude euskal estatu independentea sortu, garatu eta babestearekin?”

■ %21: “Nahi al duzu euskal estatu libre bateko herritarra izan?”

■ %56: “Nahi al duzu Euskal Herria estatu independentea izatea?”

## Galdera adosteko osatu den prozesua

■ Otsailaren 17ra arte: Herritarrek proposamenak bidaltzeko aukera izan zuten. - Gero, hiru galdera adostu zituen, zeregin honetarako Herritzartuk osaturiko lan taldeak.

■ Otsailak 23: Batzar informatibo irekia

egin zuten Potxoenean, hiru galderak aurkeztu eta eztabaidatzeko.

■ Martxoak 12ra arte: Herritarrek galderon inguruko iritzia emateko aukera izan zuten.

- Ondoren: herritarren iritziaz aztertu eta Talde Sus-

tatzaileak lantaldearen proposamena kontuan hartuta, behin betiko galdera zehaztu du.

■ Martxoak 19: kontsultarako galdera ezagutzera eman zen, Munalurran ospatu zen Bizi Kalea ekimenaren baitan.



# Iñorkiñak taldeak jarri dio doinua maiatzaren 7ko galdeketari



Iñorkiñak taldeak egin du kantua. Aurreko igandean jo zuten lehen aldiz jendaurrean.

**G**aldera soilik ez, soinu banda ere badu jada maiatzaren 7ko herri kontsultak. Herritarrek jarri diote doinua, usurbildarrek hilabete eta erdi barru hautesontzien bueltan izango duten hitzorduari. Iñorkiñak taldekoek hain zuzen, beste hainbat usurbildarren laguntzaz.

Martxoaren 19an aurkeztu zuten Munalurran ospatu zen Bizi Kalea ekimenean, datorren herri kontsultarako espresuki sortutako abesti alai eta dantzagarria. Maiatzaren 7an parte hartzera, bozka ematera animatzen gaitu kantak. “Hitzza hartu dezagun, itzartu gaitzen”, zioten.

## Kantuaren hitzak

Badira urte batzuk  
Gazta jan gendula,  
Zati bakarrakin baina ez gaude asetuta  
Eskozia aldetik etorrita erronka  
Euskaldunak izanda, gu ezin konforma.

### Herritzartu!! (3)

Oiarbide lagunak beti ozen dio  
Aske gara nor garen erabakitzeke  
Usurbildarrak ere ez gattun gutxiyo,  
Maiatzaren 7an indartu berriro.

### KANTUA

**“Kantua martxoaren  
19an aurkeztu zuten  
Munalurran ospatu zen  
‘Bizi Kalea’ ekimenean”**

**Abestia entzungai izateko deia**  
Munalurra plazan hilaren 19an ospatu zen Bizi Kalea ekimenaren baitan aurkeztu zuen Herritzartuk, galderarekin batera, baita abestia bera ere. “Gure eskerrik zintzoena”, adierazi zieten txalo artean, kanta honen sortze lanetan parte hartu dutenei. Abestia aurkeztuta, maiatzaren 7ra bitarte, ahal

bezain bestetan entzungai izateko deia zabaldu dute galdeketako antolatzaileek. “Espero dezagun maiatzaren 7a bitartean herriko gune desberdinetan entzutea, guztion bultzada beharko baitugu egun arrakastatsua eta parte hartzailea izan dadin”, zioten Herritzartutik.

### Abestiaren xehetasunak

■ Abestiaren egilea: Iñorkiñak taldea (Mikel Alkorta, Luken Arkarazo, Jokin Irastorza eta Aroa Etxeburua).

■ Laguntzaileak: Ixak Arruti, Olatz Allur, Nora Huitzi, Martina Artola eta Araia Zubizarreta.

■ Garate estudioan grabatua.

■ Ekoizlea: Luken Arkarazo.

## Hurrengo deialdiak Herritzarturen egoitzaren inaugurazioa

**Martxoak 24, ostirala**

■ 19:00 Herritzartu elkartaren egoitzaren inaugurazioa. Kokalekua: Etxebeste kalean, elizaren sarreraren parean, Lizardi liburudenda eta Mariaje arropa dendaren tartean. “Lokalean bertan elkartuko gara, mokadutxo eta trago batekin egun hauean atondu eta txukuntzen aritu garen egoitzaren inaugurazio ofiziala egiteko. Herritar oro gonbidatua dago noski”.



## Hitzaldi zikloa Sutegin

**Martxoak 31, ostirala**

■ 19:00 “Erabakitze eskubidea Katalunian eta Euskal Herrian. Ze paper jokatzeko ari da gizarte mugimendua?”. Hitzlariak: Elena Jimenez (Òmnium Cultural) eta Pello Urzelai (Gure Esku Dago). Elkarrizketatzailea: Mertxe Aizpurua (kazetaria).

### Apirilak 5, asteazkena

■ 19:00 Tolosaldeko galdeketaren ingurukoak ezagutzeko aukera. Hitzlariak: Kike Amorriz soziolinguista eta teledibista aurkezlea; Garbiñe Biurrin epailea.

### Apirilak 21, ostirala

■ 19:00 “Erabakitze eskubidea alderdi politikoan ahotan”. Hitzlariak: Luke Uribetxeberria (EAJ-PNV), Marian Beitialarrangoitia (EHBildu) eta Juantxo Iturria (Ahal Dugu-Podemos).

Hi ta ni eskutik helduta  
Etxarri Aranazeko kaleetan galduta  
Jostunak ere izan gaitzke,  
Bozka ontzi bat hondartzan euritakoz betez.

Libre izatearen ametsari segi,  
Irrifarrea ez galdu, ez sekula etsi.  
Errespetuaren giltzarria hartu  
Izan nahi dugun guztia, dago gure esku.

Zer ari haiz itxoiten

**Iñorkiñak**

# Bizi Kalea, inoiz baino biziagoa

**O**sagai anitz izan zituen martxoaren 19ko Bizi Kaleak; maiatzaren 7ko herri kontsultarako Herri-tzartuk ospaturiko galdera eta abestiaren aurkezpena, dirua biltzeko sari mordoa banatu zuen tonbola, jan edan goxoa Hurbilago Elkarteko tabernarien eskutik, Lauburu Konpartzako buruhandien korrikaldiak, txikientzako sorkuntza tailerra Txirinbolo dendaren eskutik... Eta jendetza erakarri zuen giro eguzkitsua. Festa egun borobila dudarik gabe. Amaieran zozketatu zen 150 euroko erosketa balea, Susana Martin herritarrari egokitu zitzaion. Zorionak!

Hurrengo Bizi Kalea, apirilaren 9rako iragarri du Hurbilago Elkartek, oraingoan Mikel Laboa plazan (euria egingo balu frontoian). Datorrena ere berezia izango da, 5. Dantza Egunaren biharamunean ospatuko baita. Orbeldi Usurbilgo Dantza Taldeak, ohi baino egitarau zabalagoa prestatu du aurtengoan. Azken hitzordua, apirilaren 9rako 13:00ean Mikel Laboa plazako Bizi Kalea ekimenaren baitan; Tioteronen Semeak taldekoen "Fresh-cool" kale ikuskizuna.



Honakoan, eguraldia lagun izan zuten Hurbilagokoek. Saria Susana Martinentzat izan zen.

## Zubietako kontsultaren galdera hilaren 30ean adostuko da

**A**stearte honetarako, martxoaren 21erako deitua zuten Zubietan, maiatzaren 7ko herri kontsultarako galdera adosteko batzar irekia.

Zubiartean Elkartek ordea, hitzordua martxoaren 30era atzeratzea erabaki du. Hilaren 30ean, 19:00etan Kaxkapen deitu duten bileran adostuko dute kontsultarako galdera,

iragarri dutenez, Mario Zubiaga EHU-ko irakaslearen laguntzaz.

### Harremanetarako

Taldearekin hartuemanetan jarri eta kontsultarako manifestua sinatzeko bideok dituzue:

- Facebook: Zubiartean
- zubiartean@gmail.com
- Zubiartean Elkartearen batzarrak, asteartero 19:00etan Kaxkapen



Martxoaren 30ean Kaxkapen egingo den bileran erabakiko da galdera.



# Gurasoen nahiz herritarren iritzia ezagutu nahi dute Ikastolan

Udarregi Ikastolak, bere hezkuntza eskaintza aztertu eta hobetzeko asmoz, Ikastolako guraso nahiz herritarren iritzi eta ikuspuntuak ezagutu nahi ditu. Ikerketa egiteko Gura Market IN enpresaren zerbitzuak kontratatu ditu eta galdetegi bat prestatu du. Udarregitik aditerra eman dutenez, "honen berri ematen duen gutuna eta galdetegi posta arruntaz jasotzen ari zarete egunotan". Ikastolak bere zerbitzuak hobetzeko baliatu nahi du informazioa.

## Aukera ezberdinak

Galdetegi guztiz anonimoa da, ez da inongo identitaterik eskatzen, eta ikertzaile taldeak jaso eta aztertuko ditu erantzunak. "Hori betetzeko hainbat aukera eskaintzen dizuegu", Udarregitik jakinarazi dutenez.

- Gutunean jasotako galde-



Udarregi ikastolak galdetegi bat prestatu du. Argazkia, artxibokoa.

## UDARREGI IKASTOLA

**"Ikastolak eskaintzen duen zerbitzua hobetzeko zuen laguntza ezinbestekoa denez, galdetegi bat eskatzen dizuegu"**

tegia bete, bertako gutun-azalean sartu, eta itzuli.

- Online. Honako webguneetan [www.udarregi.eus](http://www.udarregi.eus) edo [www.gura.es](http://www.gura.es)

- Telefono bidez, 626 095 789 zenbakira deituz.

## Zerbitzua hobetzeko xedez

"Ikastolak eskaintzen duen zerbitzua hobetzeko zuen laguntza ezinbestekoa denez, arren, galdetegi bete dezazuen eskatzen dizuegu".

# Foru Aurrekontuak errekurrituak, erraustegiaren zorra ezkutatzegatik

Erraustegi eraikitzeak eragingo duen zorra ezkutatzegatik eta "gipuzkoar guztion interesen defentsan", administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu du EH Bilduk, EAJ eta PSEren aldeko bozkekin onarturiko Gipuzkoako 2017ko

Aurrekontuen Foru Arauaren aurka. Otsailaren 22an aurkeztu zuten Xabier Olanok eta Iban Asenjok sinaturiko auzi-errekurtsoa EAEko Auzitegi Nagusian. "Iruzur egiten da", adierazi du EH Bilduk ohar bidez. "Gipuzkoako Hon-

dakinen Kudeaketarako (GHK) partzuergoa Aldundiari atxikitako erakundea izanik, haren zorra bere gain hartu behar du Diputazioak. Foru Gobernuak, aldiz, zorra ezkutatu du, indarrean dauden legeak urratuz", salatu du koalizioak.

## Lanbide Eskolan, bisita gidatua

Martxoak 25, larunbata

■ 10:00 Lanbide Eskolako energia berriztagarri eta eraginkortasun energetikoari buruzko bisita.

■ Oharra: bisitarako izena aurrez eman Usurbilgo Udalean edo ingurumena@usurbil.eus helbidera idatzita.

■ Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, Goiener Energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba eta Usurbilgo Lanbide Eskola.

## Baionako euskal lizeoa laguntzeko

### elkartasun kanpaina

Ipar Euskal Herriko euskal lizeo bakarra, Bernat Etxepareren eraikin berria ekipatzeko 300.000 euro behar dituzte. Laguntzarako "Euskararen sagartzea" elkartasun kanpaina antolatu dute.

### Ekarpinak non eta nola egin

Diru ekarpinak eginez, sagarrondoak erosteko aukera duzue apirilaren 7ra arte, NOAUA!n, Alkartasuna Kooperatiban, Lizardi liburudendan eta Udarregi Ikastolan. Honez gain, eragile, elkarte, kooperatiba eta enpresei ere deia luzatzen zaie kanpaina honetan parte hartzeko. Honatx harremanetarako telefono zenbakia: 688 639 910.



300.000 euro batu behar dituzte.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**EROSKI/city**  
kale Nagusia 10, USURBIL  
943 361182

**Partzi**  
Patriotas  
Iatetxea  
bazkariak EGUNERO  
afariak. asteazkenetik larunbatera  
© 943 362725 · © 688 690 361

Tallak  
36-60  
**INQUIETUD**  
JANTZI-DENDA  
Nagusia 49, LASARTE-ORIA



## Etorkizuneko Zubieta marrazten

Parte hartze prozesuak martxan jartzen ari da Donostiako Udala auzo ezberdinetan. Zubietako zati bat ere Donostiakoa izanik baita Zubietan ere. Baina bertan prozesu propioa abiatzea erabaki dute.

Etorkizuneko herria diseinatu nahi dute. Diagnostika osatuko dute, norbanakoen eta kolektiboaren asebetetze faktoreekin etorkizuneko Zubieta irudikatu; etorkizuneko agertokiak mahaigaineratu eta dakartzaten mehatxuak eta aukerak ikusi nahi dituzte; eta gaurtik aurrerako es-



Parte hartze prozesuak antolatu ditu Donostiako Udalak baina Zubietan prozesu propioa abiatzea erabaki dute.

trategiak eta lan ildoak zirriboratu. Asteotan batzarrak egiten ari dira herritarrekin batera, Kaxkapeko lokalean.

## Hurrengo mendi irteera, apirilaren 9an

Bidasoako Kontrabandistak ibilbideko laugarren etapa osatzeko aukera izango dute mendizaleek apirilaren 9an, 7:30ean Oiardo Kiroldegitik autobusez abiatuta.

Beintza eta Ziga lotuko ditu 32 kilometroko txangoak. "Autobusa Belaten 20. kilometroan zain izango dugu, nahi duenak Zigaraino Belatetik autobusez joateko", ohartarazi du Andatza M.K.T.-k. Bazkaria norberak eraman beharko du, mendi ibilbidean zehar egingo baita otordua. Izen emateko epea zabalik egongo da apirilaren 5era arte. Plaza kopurua mugatua izango da. 10 euroko ordainketa egin beharko da kontu zenbakiotako batean:



Bidasoako Kontrabandisten ibilbideko laugarren etapa osatuko dute apirilaren 9an. Argazkia: Mikel Zubelzu, andatza.com orritik hartua.

Rural Kutxa: 30080259163005430321  
Kutxabank: 20955069071068489805

### Maiatzean, bi irteera

Maiatzaren 7rako, Bidasoako Kontrabandistak ibilbideko

hurrengo etapa antolatu dute, Ziga-Erratzu artekoa. Eta maiatzaren 13 eta 14an, Herri Urratsera joateko bi eguneko edo egun bateko irteera. Informazio gehiagorako: andatza.com

### Esther Arrojeriarentzat akabo denboraldia

Lotailu-haustura izan zuen bere eskuin belaunean, selekzio absolutuarekin martxoaren 17an Errumanian burutzen ari zen entrenamendu saioa hasi berritan. Denboraldi amaiera honetan eta hurrengoaren hasieran bajan izango da usurbildarra.

### Udaberri giroa, Txokoaldeko orientazio proban

Azaroaz geroztik jokoan den Gipuzkoako Orientazio Ligaren baitako laugarren proba Txokoalde eta Andatza bueltan ospatu zen igande goizean. Ia 400 lagun zeuden izena emanda. Orientazio liga amaitzeko beste bi proba geratzen dira:

■ Maiatzak 7: Oianleku (Oiartzun).

■ Ekainak 4: Ulia (Donostia). Proba hauen inguruko informazioa eta Txokoaldeko ekimeneko sailkapena, gotorientazioa.org atarian duzue.



Ia 400 lagun zeuden izena emanda.

**txirriStra**  
TABERNA

-Plater konbinatuak  
-Ogitartekoak  
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**USURBIL AUTOAK**  
-TAILERRA - KARROZERIA - KOTXEEN SÄLMENTA

**Ford**

**SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

zerbitzu ofiziala  
Zumartegi industrialdea

943 36 10 79

# Zubieta, joko garbiko Gipuzkoako txapeldun

**B**ai ala bai, jakina zen Zubieta nagusituko zela final handian. Zubietako bi taldeen artean jokatu baitzen larunbat arratsaldean Villabonan, Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketako joko garbiko azken neurketa. Joseba Aizpurua eta Antton Arrillaga nagusitu ziren. Imanol Aizpurua eta Josu Aizpurua berri txapeldunorde ditugu. Zorionak!

Honatz final handiko azken emaitza:

- Zubieta 3 40  
(Joseba Aizpurua-Antton Arrillaga)
- Zubieta 1 35  
(Imanol Aizpurua-Josu Aizpurua)



Villabonan jokatu zen finala. Joseba Aizpurua-Antton Arrillaga bikotea nagusitu zen.

## Kadete mutilen eskubaloit taldea, Euskadiko Txapelketako finalean



Asteburuko garaipenaren ondoren, Usturbil Kiroel Elkarteko kadete mutilen eskubaloit taldea Euskadiko lauko finalerako sailkatu dela berri eman dute eskubaloit elkartetik.

## Usturbil FT Txokoetako izena emateko epea

Gaztetxo futbolariaren topaketa ospatu zuten aurreko oporraldian. Apirilaren erdialdean ikasleek izango dituzten atsedeen egunetarako kirol txokoak antolatu ditu Usturbil F.T.-k. Jada izen emateko epea ireki dute.

### Epea: martxoak 31

Martxoaren 31ra arte bideratu ahalko da inskripzioa, Haranen. Kirol jarduera ezberdinetan parte hartzeko aukera eskaintzen duten txokoak, apirilaren 18tik 22ra izango dira, goizez, 09:30-12:30 artean.

## Eskubaloit partidak

### Martxoak 25 larunbata

- 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5C-Langile A
- 09:30 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 6C-Langile B
- 10:30 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi D Usturbil-Leizaran B
- 11:45 Infantil mutilak, lagun artekoa: Udarregi A Usturbil-Udarregi B Usturbil
- 18:00 Senior neskek, Zilarrezko Ohorezko Maila: Usturbil K.E.- Constr. Loizaga Castro Urdiales

## Futbol partidak

### Martxoak 25 larunbata

- 10:00 Infantil neskek: Usturbil A-Mariño
- 11:15 Infantil mutilak: Usturbil-Tolosa B
- 16:00 Jubenil mutilak: Usturbil F.T.-Beasain S.D.

### Martxoak 26 igandea

- 12:00 Alebin federatua: Usturbil F.T.-Lengokoak K.E.

## Beste garaipen bat

### Xabier Santxorentzat

Xabier Santxo urte borobila osatzen ari da. Soraluze lau t'erdiko pilota txapelketa irabazi berri du, 22-8 emaitzarekin Labaka mendean hartu ondoren.



# ELORZA

OBRAK ETA  
ERREFORMAK S.L.

## 661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

**JUANTXO**  
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
943 370 008

**Otar-Goxo**  
Elkagaiak

Zubiaurrenea, n°2  
943 36 55 81  
20170 Usturbil

## ETXEBIZITZA

## Salgai

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. Tel. 630 490 844.

90 m<sup>2</sup> pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m<sup>2</sup> (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 395.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukalde, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu Ban. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. 25 m<sup>2</sup> trastelekua. 626 347 914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m<sup>2</sup>. 637 22 88 60

Pisu bat salgai. 90 m<sup>2</sup>. 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukalde, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642.

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukalde... Dena kanpoaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaian. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Inaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukalde egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

## Alokairuan

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Pisu bat Santuenean. 2 logela, sukalde, egongela, komuna eta sukalde. Animaliak ez dira onartzen. 667 680 236.

Logela baten bila nabil, sukalde erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen.

Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

## MOTORRA

## Salmenta,

## garajeak

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 657795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 ziilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Galtzaragainako garaje marra salgai. 20.000 euro. 687348223

Garaje itxia salgai, 38 m karratukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m<sup>2</sup>, Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala

la salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Zubietan, etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. Lanaldi erdirako 695 783 202.

Arrandegirako langilea behar dut. Euskara jakitea ezinbestekoa. 628 063 871.

Aseguru sektorean espezializatua den gestore personal baten bila gaitzeta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatria laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldarean ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketant, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna

moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gazte, geriatrian laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeko lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paterekin, ordukoak lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritzea, etc. 688 642 835 / 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo umeak zaintzeko eskaintzen naiz. Usurbilgoa naiz eta erreferentziak ditut. 658703636 Lupe.

Auxiliar laguntzaile tituluduna, helduak zaintzeko eta etxeko zerbitzurako prest, baita garbiketa lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketant, jantxetx batean harraskan aritzeko edo pertsona helduak zaintzen. Paperak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Ingeniaritza kimikoan graduatua, ingeles maila altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati eta Ane bakarkako partikularrak, arreta hizkuntzen sakontzea eta beste zenbait lanketa eskaintzen ditugu. Pedagogia eta beste hainbat ikasketak. Deitu edo bidali mezua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen da, astean bi edo hiru egunetan garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, irailatik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da uda garaian baratzaiko lanak egiteko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka edo hospitalean egoteko. Tel. 676 188 411.



## Zorionak June eta amatxo!

Astelehenean zuen urtebetetzea izan zen. Espero dugu egun ona pasa izana. Muxuak familikoan partez.



## Zorionak txapeldun!

Muxu handi bat etxekoan partetik.



Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 618 756 934

Neska arduratsua lan bila dabil pertsona helduak zaintzen, interna moduan ere bai. 631 224 621

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketara lanetan. 642 704 992.

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketara lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketara lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile titularekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketara. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel.

631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna

haurrak zaintzen eta udalekue-tan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketara lanak egiten, jabetxe-ren batean harraskako garbiketara egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldetan, garbiketara. Arduratsua. 622 487 879.

#### BESTELAKOAK

Betaurreko batzuk agertu dira, graduatuak eta funda beltz batean. Atxegaldeko erdiko kalean. Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Artzabal inguruan ume txano grisa galdu dugu; ponpoiduna eta belarriak tapatzekoak dituen. Norbaitek aurkituko balu, eskertuko genuke udaltzaingoa entregatzea.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosiko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa eta 2 X 0,90 metroko neurriekin, salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Katakumeak oparitzen ditut. Ba-

serrian ohituak. Tel. 610 375 595.

Txokoalden, San Esteban gora aldera igotzen, Mugi txartel bat aurkitu da. Izena: Jose Maria Otaegui Mugica. Udaltzainetan dago, eta pasa handik bila.

Puntuzko txaketa beige bat galdu zen uztailaren amaieran, anbulategi erdigune inguruan. NOAUA!ra ekarri mesedez.

Abuztuan Usurbilgo Udaltzain-gora haurrentzako botika eta higieneko produktuz betetako laranja koloreko nezeser edo botikin bat entregatu dute. Galdu duenak Udaltzaingoa galde dezala.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Maiatzaren 26an, 17:00ak aldera Oiaro Kirolegian Golf gris auto bati kolpe txiki bat eman nion. Ohar bat utzi nion. Zurea bada jarri nirekin kontaktuan; 635 71 35 97.

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkartean. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polarr bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakararako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuetak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerdik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Aberre-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Ambulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztxetxea.....	943 362 163
Oiaro Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 23** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Ostirala 24** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Larunbata 25** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Igandea 26** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Astelehena 27** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Asteartea 28** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Asteazkena 29** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

## Martxoak 23 - apirilak 02

**Osteguna 30** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Ostirala 31** GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

**Larunbata 01** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

**Igandea 02** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE Elkano 9 Behea, Hernani 943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda martxoa

## 24 ostirala

- **Soinurbil:** Rockalean ikuskizuna. 20:00etan kalean zehar.
- **Herritzarturen egoitzaren inaugurazioa,** 19:00etan Etxebeste kalean. Lizardi liburu-denda eta Marije arropa dendaren artean.

## 25 larunbata

- **Soinurbil:** Zumarteko Pop-Rock taldeak 12:00etan Mikel Laboa plazan.
- **Kantu-jira.** 12:00etan Mikel Laboa plazatik.
- **Erraustegiaren alternatibaren aldeko manifestazioa** 17:00etan Donostiako Anoeta estadiotik abiatuta.

## 26 igandea

- **Soinurbil:** Azkoitiko musika banda. 12:00etan kalejira, 13:00ean Kontzertua frontoian.
- **14. Laburbira** 19:00etan Sutegiko auditorioan.

## Igandean, "Laburbira" Sutegin

A biatu da Laburbira, Euskaltzaleen Topagunearen euskarazko film laburren zirkuitua. Aurten, zazpi dira hautatuak izan diren lanak. Igande honetan Sutegin ikus ahal izango ditugu, 19:00etan hasiko den proiektzioan.

Martxoaren 3an hasi eta apirilaren 7an bukatuko da aurtengo Laburbira, Euskaltzaleen Topaguneak antolatzen duen euskarazko film laburren zirkuitua. Laburbiraren helburu nagusiak euskarazko film laburrak eta haien egileak ezagutaraztea da, ikusleei hauek ezagutu eta beraiekin gozatzeko aukera emanez.

Denbora tarte horretan, Euskal Herriko eta atzerriko 32 herri eta hiri zeharkatuko ditu. Igande honetan iritsiko da Laburbira gure artera: arratsaldeko 19:00etan hasita, Usurbilgo Sutegi auditorioan ikus ahal izango ditugu film laburrak. Aurreko edizioetan bezalaxe, NOAUA!ren eskutik

## Larunbat honetako kalejira, eguerdian

Larunbat honetan, kantu jira. Eguerdiko 12:00etan abiatuko dira Artzabaldik eta 14:00ak aldera arte arituko dira kantuan. Ez ahaztu; "har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera!".



Kandido Uranga, Itziar Atienza eta Martxelo Rubio, 'Hileta' film laburreko pasarte batean.

iritsiko da Laburbira gure artera.

## Zazpi film labur

Hauek dira hautatuak izan diren ikusentzunezkoak: Oier Fuentesen *Azken Saska*, Ageda koplalaldearen *Beti bezperako koplak*, Alejandro Diaz Castañoren *Ihesa*, Ibon Izaren *Elemakarrak*, Eki Pagoagaren *Jalgi*, UDA Filmsen *280°* eta Kepa Sojoren *Hileta*. Gainera, Euspot lehiaketako emaitzik onenak ikusteko aukera ere izango da.

## Asteburu honetan, ordu aldaketa

Udaberrian sartu berri, orduetegi berrira egokitzeko garaia iritsi da. Ordu aldaketa asteburu honetan egin beharko dugu: igande honetan, goizaldeko 02:00etan 03:00ak izango dira.

## Datozenak

### Martxoaren 28an, Jai Batzordearen bilera

Datorren asteartean, martxoak 28, Jai Batzordearen bilera berri bat. Arratsaldeko 18:00etan batuko dira Potxoenean.

### "Zure enpresa nola sortu eta kudeatu" ikastaroa

Beterri-Buruntzako Udalek sustatu dute programa hau, eta enpresa bat sortu nahi dutenentzat edo sortu dutenentzat bideratuta dago. Ekin-tzaileei formakuntza eskaintzen zaie enpresa sortzeko edo kudeaketan laguntzeko. "Gertu Asesores de Enpresa y Abogados SL" izango da kurtsoa eskainiko duen enpresa eta Lanbidearen kolaborazioa izango du.

- Ikastaro hau doanekoa da.
- Ikastaroa Andoaingo Urigain etxean eskainiko dute, apirilaren 26an eta 27an.
- Bi txanda, aukeran: Goizez, 9:00-13:00. Arratsaldez, 15:00-19:00.
- Informazio gehiago jasotzeko: ekinean@andoain.eus 943 304 221 (Nerea Yurrebaso) Lanbideko bulegoetan.



EGUNEKO MENUA KARTA  
PLATER KONBINATUAK  
OGITAR TEKOAK · TOSTAK  
MENU BEREZIAK

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

[www.artzabaljatetxea.eus](http://www.artzabaljatetxea.eus)



ANORGA TXIKI S.L.

KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak · beira bikoitza  
· segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak  
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

# OSASUN GIDA 2017



**Laster zabalik!**

**Irati Ibargoien**  
FISIOTERAPIA ETA OSASUN ZEHITOKA  
943 53 92 66

- Errehabilitazioa
- Kirol fisioterapia
- Fisioterapia traumatologikoa
- Fisioterapia neurologikoa
- Terapia funtzionala
- Osteopatia

**PILATES TERAPEUTIKO PERTSONALIZATUA**

Puntapax 6B, behea ezk. - USURBIL



**USURBIL**  
**OPTIKA**

Bigarren lente pareta doan: lente progresiboetan, irakurtzeko lenteetan eta ikus-urruneko lenteetan

Zubiaurrenea, 10 • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

2. lente pareta doan  
**2x1**  
PROGRESIBOETAN  
IRAKURTZEKOETAN  
IKUS-URRUNEKOETAN



**Öinutsik**  
p o d o l o g i a z e n t r o a

943 11 09 54 zubiaurrenea 2, Usurbil



**Öinutsik**  
943 11 09 54

- Azterketa biomekanikoak
- Plantilak
- Papilomak
- Erreflexoterapia
- Kolagenozko infiltrazioa
- Kiropodiak



**Iturraldebotika**  
Tomas Iturralde botika  
108/12 PEZ

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua  
Dermofarmazia  
Produktu homeopatikokoak  
Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95 [www.iturraldebotika.com](http://www.iturraldebotika.com)



**Lizarralde**  
**ORTOPEDIA**

- ✓ OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA
- ✓ Produktu ortopedikoen alokairu zerbitzua (oheak, aulkak, garabiak...)
- ✓ Arreta pertsonal eta espezializatua

✚ Teknikari ortopeda kontsulta    👤 Aholkularitza    🧴 Produktu gama zabala

Kazkazuri 1 boxua, Oiarzun - 943 543 585/ 688 678 583  
[www.lizarraldeortopedia.eus](http://www.lizarraldeortopedia.eus)

**LOGOPEDIA**  
Haurrak / Nerabeak / Helduak  
TERAPIA MIOFUNKSIONALA

- Arnasketa arazoak, disglusia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfemiak, disfonia funtzionala sinple eta konplexua...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...

Aurreko hitzordua: 635 701 374





# ERABAKITZEKO ESKUBIDEAREN INGURUKO HITZALDI ZIKLOA

**MARTXOAK 31**, OSTIRALA - 19:00tan SUTEGIN

Erabakitze eskubidea Katalunian eta Euskal Herrian. Ze paper jokutzen ari da gizarte mugimendua?



**HIZLARIAK**

Elena Jimenez [Omniium Cultural]  
Pello Urzelai [Gure Esku Dago]



**ELKARRIZKETATZAILEA**

Mertxe Aizpurua  
[Kazetaria]

**APIRILAK 5**, ASTEAZKENA - 19:00tan SUTEGIN

Tolosaldeko galdeketararen ingurukoak ezagutzeko aukera.



**HIZLARIAK**

Kike Amonarriz [Tolosaldeako GED]  
Garbiñe Biurrun [Tolosaldeako GED]

**APIRILAK 21**, OSTIRALA - 19:00tan SUTEGIN

Erabakitze eskubidea alderdi politikoan ahotan.



**HIZLARIAK**

Luke Uribetxeberria [EAJ-PNV]  
Marian Beitialarrangoitia [EHBildu]  
Juanxo Iturria [Ahal Dugu-Podemos]

**ELKARRIZKETATZAILEA**

Fermin Munarriz  
[Kazetaria]



eta



elkarlanean!